

JARDUERA



Aritz Sagarna
Itoitz Salaberria
Xabier Zamora
Olatz Sanchez

Gure negozio-ereduaren edo proiektuaren kasuan, hainbat jarduera dira ezinbestekoak bideragarria izateko. Egin dugun baliozko proposamenaren eskaintza betetzen laguntzen dute jarduerak, bezero potentzial gehiagotara zabaltzeaz eta diru-sarrerak lortzeaz gainera. Gure proiektuari dagokionez, hainbat jarduera gauzatzen ditugu honen bitartez eta beraz, zaila egiten zaigu funtsezko jarduera bat finkatzea.

Alde batetik, gure enpresak eskaintzen duen zerbitzua alde aurreko ekoizpen batetik dator (inprimagailua, txartelak, banda magnetikoak...). Horregatik, ezin genezake esan "IOIKAN"en kasuan bezala ekoizpena dela gure funtsezko jarduera, baina beste enpresa askoren antzera, ezinbestekoa zaigu jarduera hau. Hau da, nahiz eta diseinua edo "entrega" ez izan gure proiektuaren kezka nagusienak, bezeroei begira kontuan edukitzeko garrantzia handiko faktoreak dira.

Bestetik, proiektu honek ikaragarritzko plataforma izan beharko du teknologiari dagokionez. Mantenua, gestioa, etab. oso garrantzitsuak izango dira proiektua bideragarria izateko eta zerbitzuan etendurarik ez emateko. Honetarako, interneteko webgune bat garatu beharko dugu, eta azpiegitura egokiak. Hala ere, jarduera hau enpresa kualifikatuen esku utz genezaguke, eta beraz, ezin du gure funtsezko jarduera izan, nahiz eta oso gertutik aztertu beharko dugun jarduera den.

Horregatik, gure funtsezko jarduerak proiektuaren oinarritzko helburua betetzen lagunduko du, hau da, arazoak konpontzeko jarduera bat dela esan genezake. Izan ere, zerbitzu bat izanik, merkatuaren gabezia bat konpontzen edo falta dena eskaintzen saiatzen gara.



Produktu bat ekoitziz gero, ekoizpena izango litzateke funtsezko jarduera, baina zerbitzuen kasuan haratago doa. Gainera, aipatu dugun bezala, nahiz eta azpiegitura on bat osatu behar dugun, gure proiektua ez dago horretara bideratuta. Beraz, gure zerbitzua etengabe egokitu beharko da bezeroen beharretara, haien arazoak konpontzea baita helburua.